Agora, ezagutzaren plaza

Hitzaldi-solasaldia Juan Manuel Machimbarrena irakaslearekin

Konektatuta, baina benetan elkarrekin? Bakardadea, sare sozialak eta adimen artifiziala

Iurretan, 2026ko azaroaren 3an. Inoiz baino konektatuago bizi gara, baina benetan hurbilago al gaude elkarrengandik? Hainbat ikerketek sare sozialen gehiegizko erabileraren eta pertsonen arteko harremanak ezartzeko zailtasunen arteko lotura aurkitu dute.

Gainera, ChatGPT, Copilot edo Gemini bezalako adimen artifizial sortzaileko tresnen agerpenak, baita tresna horiekin erlazionatzeko dugun moduak ere, erronka, aukera eta galdera berriak planteatzen dituzte. Adibidez, zenbateraino eralda ditzateke teknologia horiek gure harremanak eta akonpainatuta sentitzeko dugun modua?

Gai horiei buruz hausnartzeko, **Juan Manuel Machimbarrena**, Psikologian doktorea eta EHUko Psikologiako fakultateko irakasleak, *"Konektatuta, baina benetan elkarrekin? Bakardadea, sare sozialak eta adimen artifiziala"* hitzaldi-solasaldia emango du azaroaren 10ean, datorren asteartean, Iurretako Udal Liburutegian. Ekitaldia 18:30ean hasiko da eta euskaraz egingo da.

Hitzaldian, Machimbarrenak bakardadeak gure bizitzan duen zeregina eta osasunean nahiz ongizatean duen eragina jorratuko ditu. Era berean, sare sozialek benetan konektatzeko zenbateraino balio duten aztertuko du. Horrez gain, gero eta konektatuago dagoen mundu honetan giza harremanak nola ari diren aldatzen hausnartuko du.

Jarduera hau 2026/2027 ikasturteko lehen saioa izango da, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Iurretako Udal Liburutegiak elkarlanean antolatzen duten *Agora, ezagutzaren plaza* hitzaldi-zikloaren barruan. Sarrera librea eta doakoa izango da, baina aldez aurretik izena eman behar da biblioteka@iurreta.eus helbidera e-mail bat bidaliz edo 946 812 726 telefonora deituz.

Hizlaria

Juan Manuel Machimbarrena Psikologian doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Doktoregoko Sari Berezia Lehen Hezkuntzako zikloko ikasleen arteko eskola-jazarpenari eta ziberjazarpenari buruzko tesiagatik. Gaur egun, EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea da. Nerabeek ingurune digitalean dituzten arriskuak ikertzen ditu, hala nola ziberjazarpena, indarkeria digitala bikote-harremanetan eta teknologiaren erabilera problematikoa, arreta prebentzioan jarriz bereziki.

Hitzaldi-solasaldia: "Konektatuta, baina benetan elkarrekin? Bakardadea, sare sozialak eta adimen artifiziala"

Hizlaria: Juan Manuel Machimbarrena, Psikologian doktorea eta EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea.
Data: azaroaren 10ean, asteartean.
Ordua: 18:30ean.
Hizkuntza: euskara.
Lekua: Iurretako Udal Liburutegia (Bidebarrieta, 4 – Iurreta). Lehen solairua.
***Streaming*-a**: Katedratik (TikTok Live).

Ágora, plaza del conocimiento

Charla-coloquio con el profesor Juan Manuel Machimbarrena

Conectados, pero ¿realmente juntos? Soledad, redes sociales e inteligencia artificial

Iurreta, 3 de noviembre de 2026. Vivimos más conectados y conectadas que nunca, pero ¿estamos realmente más cerca de las demás personas? Diversos estudios han encontrado una relación entre el uso excesivo de las redes sociales y las dificultades a la hora de establecer relaciones interpersonales.

Además, la irrupción de herramientas de IA generativa como ChatGPT, Copilot o Gemini, así como nuestra manera de relacionarnos con ellas, plantea nuevos retos, oportunidades y preguntas. Por ejemplo, ¿hasta qué punto pueden estas tecnologías transformar nuestras relaciones y nuestra manera de sentirnos acompañados y acompañadas?

Para reflexionar sobre estas cuestiones, **Juan Manuel Machimbarrena**, doctor en Psicología y profesor de la Facultad de Psicología de la EHU, ofrecerá la charla-coloquio "Konektatuta, baina benetan elkarrekin? Bakardadea, sare sozialak eta adimen artifiziala" (Conectados, pero ¿realmente juntos? Soledad, redes sociales e inteligencia artificial) el próximo martes, 10 de noviembre, en la Biblioteca Municipal de Iurreta.

Durante su intervención, Machimbarrena abordará el papel que ocupa la soledad en nuestras vidas y su influencia en nuestra salud y bienestar. Asimismo, analizará hasta qué punto las redes sociales sirven para conectar de verdad (o no) con otras personas y reflexionará sobre cómo están cambiando las relaciones humanas en este mundo hiperconectado.

Esta actividad es la primera sesión del curso 2026/2027 del ciclo de conferencias *Agora, ezagutzaren plaza* (Ágora, plaza del conocimiento), organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la Euskal Herriko Unibertsitatea y la Biblioteca Municipal de Iurreta. La actividad, que se impartirá en euskera, es de entrada libre y gratuita, pero se requiere inscripción previa enviando un correo electrónico a la dirección: biblioteka@iurreta.eus o llamando al teléfono 946 812 726.

El conferenciante

Juan Manuel Machimbarrena Garagorri es doctor en Psicología (Euskal Herriko Unibertsitatea) y recibió el Premio Extraordinario de Doctorado por su tesis sobre acoso escolar y ciberacoso entre alumnado del último ciclo de Primaria. En la actualidad es profesor de la Facultad de Psicología en la EHU. Entre otras cuestiones, investiga los riesgos a los que se enfrentan los adolescentes en el entorno digital, como el ciberacoso, la violencia digital en las relaciones de pareja y el uso problemático de la tecnología, con especial atención a la prevención.

Charla-coloquio: "Konektatuta, baina benetan elkarrekin? Bakardadea, sare sozialak eta adimen artifiziala" (Conectados, pero ¿realmente juntos? Soledad, redes sociales e inteligencia artificial)

Conferenciante: Juan Manuel Machimbarrena, doctor en Psicología y profesor de la Facultad de Psicología de la EHU.
Fecha: martes, 10 de noviembre.
Hora: 18:30.
Idioma: euskera.
Lugar: Biblioteca Municipal de Iurreta (Bidebarrieta, 4 – Iurreta). Primera planta.
Streaming: Katedratik (TikTok Live).